

BIZKAIERA

Azken 27 urte honetan Euskal Herriko zazpi probintzietako 22 baserritan nabil, euskara aztertzen eta esaldiak eta atsotitzak biltzen¹

Horietako baserri bat Ipurtotz duzue, Aramaioko (Araba) Etxaguenen dagoena, herriko baserririk gorena (700 metro). Baserri hortako egonaldi luzeetan, batez ere Emeterio Bergaretxe izan dut maisu eta irakasle. Hortxe jaioa da eta orain 84 urte ditu.

Emeterioren euskara aberatsa, bizia, guztitarakoa da. Magnetofonoa eta agenda eskuan hartuta, beraren ondoan ibiltzen naiz bai etxean, bai kanpoan, esaten duen guztia jasotzen. Ez ditut gauzak handitzen, neure egonaldietan mila eta milaka galdera egin dizkiola esaten badut. Emeteriok bai ederki erantzun! Bai gizon argia, jatorra, legezkoa Ipurtotzeko Emeterio Bergaretxe!

Ipurtotzen, guztira, bizkaieraz mintzo dira. Luzaro barik aipatuko ditugun esaldi eta atsotitzetan garbi ikusiko du irakurleak.

27 urte honetan baserrietako euskara jasotzen ihardun eta gero, iritzi honetara heldu naiz: eguzkiz eguzki egiten dutenen euskara toki guztietan oso ona da.

Bizkaitarrek, ordea, eta bizkaieraz mintzo diren aramaiotarrek eta giputz askok, hau da, mondragoitarrek, oñatiarrek, elgoibartarrek, eibartarrek... uste oker bat dute: Goierriko, Leitzako edo Nafarroa Beherako euskara beraiena baino hobea dela. Eta batez ere Bermeoko, Eibarko edo Ondarroako euskara txarra dela. Ez da egia.

Nondik dator uste hori? Bi alderditatik: fonetikatik eta lexikotik.

Hizkuntzetan hiru alderdi ongi bereizi behar dira: alderdi fonikoa, lexikoa et egitura (structure).

¹ Oharra: Lan honetan agertzen diren hitzak eta esaldiak Ipurtotzekoak dira. (B) daukaten hitzek edo esaldiek Bizkaikoak dira. Ez dira Ipurtotzen erabiltzen eta gehienak neronek ibiltzen naizen baserrietan (Zeanurin, Mungian, Barinagan) edo neure etxean, Elgoibarren, bildu ditut.

Gipuzkera edo Nafarroa Beherako euskara fonetikaz denaz bezainbatean bizkaiera baino goxoago dela aitortu behar da. Eibarko edo Bermeoko euskara Berastegiko, Leitzaiko, Tolosako edo Landibarreko euskara baino latzago, gogortxoago, zabartxoago da belarriarentzako.

Bizkaierak *o* eta *u* gipuzkerak baino sarriago erabiltzen ditu. Hika mintzatzerakoan *jua*-ren antzeko soinu askotxo entzuten dira bizkaieraz.

“Eitten dot, dozu, urten, eñ biejuau..”.

Fonetika, ordea, ez da hizkuntzaren oinarria. Osasuna ez datza pertsonaren azal mehe edo lodian edo aurpegiaren ezintasunean. HIES (AIDS) daukan neskatilla batek, osasun ona daukan beste neskatillak baino azpegi politagoak izan litzake.

Molde berean, euskalkien bikaintasuna eta osasuna ez datza belarrirentzako goxo edo latza izatean.

Hauxe ere egia izan liteke: Bizkaiko zenbait eskualde edo herritan erdal hitz nahiko sartzen dituztela. Horrek ez du, ordea, euskara moteltzen edo txirotzen.

Alemanez hitz egiterakoan, adibidez, frantses hitzak sartzen badituzu, zeure alemana bikainago, landuago irudituko zaie bertakoei. *Intervenieren, renovieren...* eta horrelako hitzak erabiltzea dotoretzat joko dute, hitz horien ordean anglofaxonak egon arren.

Gauza bera esan liteke ingelesez. Ingelesak atzerriko hitzak bere egiteko dohain handia du. *Macho, bayou, zydeco, cajun, latino, torero* eta beste mila bere eginak ditu. Ez da horregatik itsustu, aberastu baizik.

Dena delarik, bizkaierak erdarazko hitzak onartu baditu ere (zorioneko *bentana* eta abar), beste euskalkiek erabiltzen ez duten lexiko jatorria erabiltzen du.

Bai, *coeteris paribus*, hanbatik hanbatean euskaldunok, ahal delarik, gauzak euskal hitzez esan beharko genituke.

Baina eguneroko hizketan erdal hitzak sartzen dituztenek euskaraz gaizki egiten dutela esaten duenak ez du hizkuntzei buruzko jakinduria handirik.

Behin eta berriz esan behar da. Eibarren eta Bermeon euskaraz gaizki egiten dela ueste dutenek hizkuntzalaritzan suspenso merezi dute.

Bizkaiera beste euskalkien aldean aldrebesa dela esatea ifnozokoria da eta bide batez euskaldunen erdiak euskal gaiztotzat madarikatzea.

Izan ere HIZKUNTZAREN MUINA ETA OINARRIA EGITURA da. Eta horretan ez dago zalantzarik bizkaierak ez diola beste euskalkiei inongo zorrik. Aitzitik, denetan gailen da.

Bizkaierak ongi gorde ditu - beharbada Euskal Herriko azken mugan dagoelako eta euskalkirik mintzatuena eta zabalduena delako - beste euskalkietan galdu ditugun zenbait molde jakingarri.

Horietako molde batzuk, intentsiboak eta erakusleak, adibidez, lehenagoko testu zaharretan ere aurkitzen ditugu. Hots, lehenago Bizkaian ez ezik, beste eskualdetan ere erabiltzen ziren. Gero galduz joan dira, ordea.

Nik lan honetan oso laburki, bizkaieraren eta batez ere Aramaion egiten den euskararen zenbait alderdi aipagarri azalduko ditut. Izan ere, niri galdetuz gero, egungo egunean euskararik hobereana non egiten den, Aramaion eta beraren inguruko herrietan egiten dela esango nuke, Arrasaten, Oñatin eta abarretan.

Garai batez baserrietan kutxak eta tresna zaharrak bota egiten zituzten edo merke saldu. Ez zekiten gauzen balioa.

Bizkaiera ere bizkaitar, arabatar eta giputz askok guttietsi egiten dute, zenbat balio duen ez dakitelako.

Bizkaiera ezagutuago, ohoreago izango duzu.

1. LEXIKOA

Aramaioko euskalkiak eta bizkaierak eskuarki bikaitasun handia erakusten dute hitz alorrean.

1.1.

Egia da Bizkaiko zenbait eskualdetan *pastorea*, *bentana*, *bajau* eta horrelako erdal hitzak erabiltzen direla. Baina bai eta beste euskalkietan erabiltzen ez diren euskal hitzak ere.

Gipuzkeraz/bizkaieraz: korrika/antxixinka (B), a(r)iñeketan; debalde/doan (B); putre/sai; esperon nago/zain nao edo itxeitten nao; akabatu/amaitu B); mantendu/eun-tsin; posible da/leikiena da *edo* balitteke; imposible da/ezin leikiena da *edo* eziñezkoa da; erramu/ereñuntze (B); espres/berenberegi (B) *edo* berenberetz; ez egin kasurik/ez egin ja(ra)monik; etxera etortzeko idea dute/etxera etortekuek die *edo* etortzekotan daoz (B); konponduko degu/tolostuko dogu (B); etxea ondo preparatua/etxe ingurue ondo atondute dao...

1.2.

Aramaion egiten diren bereizkuntzak.

1.2.1.

Ipurtotzen ongi eutsi diote senidetarteko alor semantikoari. Neskak mutilari oso ederki esaten dio: *neba*. Gipuzkoan neskak “nebari” *anaia* esaten dio. Zer esango genuke mutilak arrebari *ahizpa* esango balio. Bada, huts berdintsua da neskak mutillari *anaia* esatea. *Anaia* familiako mutilek esan behar diote elkarri, ez beste inork.

Familiako alor semantiko zuzena:

Mutilak mutilari: anaia Julian Bittorren anaie da
 Mutilak neskari : arreba Jesusa Julianen arrebie da
 Neskak mutilari : *neba* Julian Jesusaren nebie da
 Neskak neskari : *ahizpa* Jesusa Mariaren aiztie da

1.2.2

Bizkaieraz gorputza eta gorpua ongi bereizten dira:

Bai ederra Estitxuren gorputza!
 Alaitzen gorpua lurpian sartu debe (B)

1.2.3

Bai eta okela eta haragia ere.

Okelie oso ona dao (B)/Ume orrek aragi trinkoa dau (B).

1.2.4

Aramaion oso ondo bereizten dira *iñor/beste*.

Iñor *orokorki* erabiltzen da (*edozein* adierazten du):

Iño(re)n lepotik bizitzeko ona ori!

Beste, *ostera*, *jazargoan*, *oposizioan* erabiltzen da eskuarki:

“Batzuk onak die, *bestiek* txarrak”.

1.2.5

Bizkaieraz ongi bereizten dira *bere/beraren*.

“Bere” konplemento zuzena denean erabiltzen da. “Beraren” genitibo denean.

“Amak bere umie maitte dau. Bera(re)n aitzak ez.” (B)

Mugaz bestaldean bere/haren bereizkuntza egiten dute
 Leiz. ... haren vianda zen othiz eta bassa eztiz Mat. 3.4

Latinez ere horrela:

“Mater filium *suum* amat; *illius* soror non amat eum”

1.2.6

Aramaion, baztaneraz eta mugaz bestaldeko euskaraz bezala ongi bereizten dira NOR eta ZEIN izenordeak. Gipuzkoan ez..

Nor etorri da? Nor da? /Zein etorri da, Gorka ala Miren? (Talde bateko bat)

1.2.7

Oso diferente dira bizkaieraz:

“Etxe *baten* egon naz” eta “Etxe *batean* ondo eta *bestean* txarto”

1.3. Lexikoa.

Aramaion pila eta pilaka hitz egoki aurkitu ditut. Horietako batzuk gipuzkeraz ere erabiltzen dira. Beste asko ez. Euskara batua aberastu eta indartu nahi badugu, toki guztietako hitzak eta erramoldeak erabili beharko genituzke. Bakar batzuk ipiniko ditut hemen.

Atabola (pandero); urra(g)o: gertuago; zamar: begiko makarra; edarra: ferreta, suila, errai. Zurezkoa. Lau uztai izaten zituen; bide arruek (estrariiek) bi muna ditu; saildu za lanien: saiatu; ustaixe, ardixei arrana ifintzeko; jan za(ha)rrien ezin leike odolik emon; ardixek topeka dabitz; gizon ori onketan doie; etxe ortan geruao baño geruao ogi obiaue eitten daue; bixetxa: lore laruak dituen landarea, zelai baztarretan eta, egoten da; zakute : lintsusa,intsusa (Beraren adarraz pitxistilluak eta enplastuak egiten ziren); sartan bat: dan-boliñ; zukulu mukulu: jan nahasia, pella, leka, patata, azanaioa; mari praka: agintzailea, gatza deukana, zartadakoa; aize berdialdibil: hotza; noberen kauten ibilli; noberen kauten lan egin: bere kasa, bere gisa; trenaren lekaixue: tutua, adarra; Mondragoiko adarra ondo entzuten da, bertan jota letxe; gomuten daukat; gomutetan naiz; neure gomute guztien; apo: txarri arra; egittarixe: egile; ezta berbakue: ez da hitzekoa; arrausi: aho zabalka; txinger: brasa; txinperta: zartaka, jauzika dabilen erregaitxoa; neskatilla txinpertie; egundoko ibillaldixe; munduen batekue za(ra) olaxe ibilteko: munduan bakarra; euri garo edo lanbro edo sirimirixe; amabi urtien alkarregaz bizi da ezautu ez; iru astien mendien eon da (Euskal Herriko baserri guztietan horrela esaten da); fardel edo nagixe; euri garo edo lanbro edo sirimirixe; amabi urtien alkarregaz bizi da ezautu ez; fardel edo nagixe; ; lur samurre: gogorra ez dena; arnasan be guzurre dauko; kuxkurre: ogi koxkorra; aurki bai: probably; ardiek: zortzi ortz beien. Goixan ez. Beixek be 8; beti orixe gauzi oi eitteko autestien (irrikaz) egon naz; aixotza: aihotz; eskuz liñu igustie: igurtzi egiten zen, gero goruetan egiteko; uren gañeko bitsetan; erreixaz, erreixaz: itteurlarixe zuzen zuzen joatea; azken baten; artakarantxue batzen: artalea; alboko mina: biriketakoa; uzena: izain, odola xurgatzen duen animalia; perlejixe: perlesia; aizea geratu da; partxisen ekiñaldi bat egin; partxisen jokaketan dot; negarrez arrantza baten; bixaeu egin (bazkalondokoa egin, 16 gizaldiko *Refranes y sentenciasen* agertzen den hitza); zamar (zabar edo ganauaren kopetekoa); ; mune eta munepei (pezoi, pezoipekoa); bide arruek (estue, txarra); azpei (haitz azpikoa); sai: putre; belauki (gari alea biltzeko palatxoa); ondiokuen (oraindikan) ondo bizi ga; ogi errogeta (xerra); sagarra onketan (ontzen) daz; sirigu (hesia igarotzeko olak); maspildu: zapaldu;

astakiñarra (iñarra bezalakoa, baina handiago); bixetza (lora laurek ematen dituen landa-
rea; zuztar bakarra izaten dau); laru (hori, beilegi); sarden (lirain); petriña (pertsonearen
gerriko uhela); lekaixo (irrintzi); gertu eon zaittez (erne); mari fraka eta mari mutil; aratus-
te: ihauteri; tellatue garrangaz (horma ziriz) beteta; gomutetan; egittarixe txarra (egitate);
justuri (trumoi); irestu (tximista); belatxinga; fardel (nagi); txirribirri (kilker); emen gabitz
erreixaz (erretzen); arrauki (esne erre gustua); kubi kubika (gordeka, zapoka); toke torreka
e(g)iñ (haurren jolasa); zapo ire (azeri garo); gartzan eiñ (haurren jolasa); alarrea eiñ (hau-
rren jolasa); zolítxo (ermetxo); zarba (chard); ardoi (harritegi, harkaitzetatik eta, eroritako
harriz egina); lubana (luebaki); ipingi (adabaki); landa potu eta basa potu (sakan ueña
duena); areka (bidebazterreko urbidea); gogaikarri (lekeda, nazkagarria); zapoarto (basur-
deek atseginez jaten duten landare honen zuztarra); lautada; kaballera (zapelaitzaren antze-
ko egaztia); zuzumie emoteust (iguina, janaz ari garela); lur makar (argala); iñerriaz inda-
ko ezuskixe (erratz, isats); azkiñeko (abarketekin ibiltzean, hanketan ipintzen zen artillez-
ko oihala); traille motza (abarkantzako artilezko lokarria); otzara (otar); doillor edo zirkiñ
(zeken); tril eiñ (topo egin); tripaerri (petral, kaskagor, eroskor); ogi bulartsua (ondo erre
barik, mami asko duena); txiliñak; zintzarritxoak; koskabillo (txintzarri borobilak); bizar-
tegi (barber's shop); pertsona jareña (ganorabakoa); mentau (txertau); makatz (madari);
erlai (eliztxori); zankabil eiñ (hankaz traba egin); gibel belar; urixola: uholde; takorri
(tabakorri); fratel sakona eta azala (portzelanazko ontzia); bertsoetako adurre; kokalla eta
kokallatu (ardiei ateratzen zaien okots azpiko boltsa, ur zikina edo, edanda); ardiek mustau
die (ganauak inoren landan sartzeko ohitura hartu duela); abarka zopita (abarka barruan
ipintzen zen ipingia) baño sikuaua; matxar edo sistriñ (kaxkar); eskape (baserriko sarrera);
erreus: gutti balio duen gauza; orei (ekaitz); orixe (teilatuko lakua); korrosaka (zurrunka);
egualdi loka (aldakor, udabidean batez ere); kaldara: bucket; txupiiñ (waistcoat); legar;
orrollo (sahats adar iñustuak ardiei emateko); amillena (Galiziako haizea); salga: I. gari
tarteaz ateratzen den belar txarra). salga: 2. zulo handidun bahea; tremes *edo* pasillora
(zahia zuen ogia, zakartxoa); ipizki (labea garbitzeko hagari eransten zitzaion zatarra);
ixeska (pago kardua); zeren; kapar: akain, kapasta, lakasta; mietz eta mietzu (bakan,
bakandu); zulonpu (haitzen arteko sakana); sastegi; merru (gizentzen ez den pertsona edo
animalia); berro *edo* lupu (neguan, ur handiak direnean, agertzen diren narrastari txikiak;
muskerraren antzekoak); zarramarrak (hondakinak); orei zaparrada; erripa (gainbehera);
aski (belar mota, ez da handi egiten baina petrala da); pastikun (elizan musu emateko iza-
ten zen santu iruditxoa <pax tecum); potxoloka (haurren jolasa); gaztaña mozkol; artabu-
ruei alie kendu ta gero arto mozkola edo kaskarie geldiketari da; karamarru: labeko mozo-
rro, roach; buzten urkullue (ipur-sarde, ipur-orratz. Ipurdian sardetxo bat daukan mam-
rotxoa. Alemanian haurrek *Ohrenzwicker* esaten diote; New Yorken *earwig*); ganorebarik
jarein (xahutu, igorri, gastatu); txakurrei edo ganauei jarein; beixaren morrosa; zaldixen
irrintziye; astuen arrantza; ardixen eta auzten orrue; txarixen kurriska; txakurran entziri-
xe; katuen miaue; oilluen karkaxie; ollarraren kukurrukue; oilluen ka(r)astarie: libre dau-
denien egiten dutena, izutu eta gero; oilluen eta belien ka(r)astarak; saixaren edo itsasan-
tzarren grankadak; amabi bat orpo tomate sartu; gogait eitten dot; dunbie (arran andixa,
biribilla); azukra tontorra; patiñe (putzadera, *well*); beixak batu; lorrera etorri dira auzo-
kuek; ulixek (fulano) lorra eiñ dau (auzokoari laguntzeko ekarrialdi bat egin); lorra gauze
aundixe; arpa *edo* adar jotzaillea; belar igerra edo berdie batu, pillatu, gero azpelak egin

(belar tolestatuta) eta laubost azpela sokiaz lotu eta ori da zendorra, sabaira edo kortara lepuen eroateko; orrixak kimatu; leizar orrixe ein biot; orrixe kimaketan nabil; aizek edo arrixe tomate kimatute itxi dau; liñue txarrantxatu; karrama (liñuari hazia kentzeko tresna); artillie kardatu, irun eta galtza eiñ; beren berez *edo* beste eitteko barik *edo* geixakoik barik fuen naz Mondragoira (beren beregi); ere maixe (ogi ore a egiteko mahaia); errastu (hildoa); goldiaz eitten dan errastue: surgu; eskillaixuek (eskiñosa) karraskada ederra jo zituen; oin ogei bat urte; ; sastei: zimauregi; bildots eraskie: amak maite ez duen bildotsa; txoriek arraultza gatxeretsi (deu)tso; sua itxungi: itzali; ez naz gomute; ulixe ta bendixe: so-and-so, fulano y zutano; gaur oreixe dao: ekaitz dago; otziketan da; orei zaparrada; jersie itxulikaldeta dauketzu; sai bat da: lasaia, gibelandi; gaztaña ori eraregie da: mentau bakoa,basa - ganbelu zar ori!: ganorabako; mitxeleta: tximeleta; igetai: igitai; ipur tatal (ipur mazel); iraupen geixao; abatetxe; itxura baten ondo dao; sorki: solki (buru gañien, edarrien azpizen ifintten zan bigungarrixe); jaurti; keixe erremolleta: mordo, xorta; bagille: ekaina; goragarrilla: urtarrila; labaña: bizarra moztekoa; lanpar: sirimiri; garo aundixe dao: intza; iri: garo; zapoiri: azerigarro; saltsa guztietako perejilla; laru: hori; atanbolia jota dantz an eiñ; estrapazau naz arri baten edo zuztrai baten; lautara; maskelu (esnie egosteko burdinezko ontzia. Astie (heldulekua) eukitten euen); gari: garitxu, azalan agertzen diren aunditxoak; gibel; biazatun; bara; ardixek orrue me(he) eitten dau; narraska narraska fuen zan: arrastaka; mutxikiñe; olata: iru puntuko opil txikixe; mokotsa *edo* karapaixue: amapuntekuek bere besotakoei ematen dien opilla. Garizuman izaten da; olo azaue joten; olo metie; orrek buldaipe etxok merezi: ez dik barkaziorik merezi (Buldaren bidez elizak pekatuen barkazioa ematen zuen); ; salamankaiñu ori!: traskil; otzara: saski, otar, zare; koskol: gatzaina estaltzen duen zorroa; moskol: arrautzaren azala; narra dauket atzamar muturrien: arantza; papar gorrixe: txantxa gorri; lubana: luebaki; uretza: sulfuro ura; arlandua; erlai: enara; urixolie: uholdea; sapaburu; lokatzara: lupetza, basatza; urduri; erkiñ: a. sistriñ eta b. doilor, zeken; sentidute dao beixe: erkin, umeminetan dago; mutiko erkin *edo* txorizue *edo* zorritzue; aratostiek: ihauteriak; seguru askorik; txiot einda nao *edo* pot einda *edo* azkeneko larakue jota nao; larako: pertikako kabila; txorra jo du: porrot egin; atz egin: azka egin; sakondara: sakonune; erripie: aldapa; pottu: aluminuzko ontzitzoa; urtail, zezeil, marti, april, maiatz, bagil, garagarril, aguztu, agor, urri, semendi, abendu; ; potxolu: zulo; suba, zapo, muzker... akabau; garranga: izotz kandela; ituziñ: ittuzura; burtaga: pertika; ardiek anketako miñe daukie; batak besteari konfiantza emon; uratzeneko (udazkeneko) orrixe baño sikuau e da; joskiñ: jostuna; zaldi zurixen tripara noie: lo egitera; zarraparrie: sasia eta zikiña; iñerrie dauen tokixen larra dao; narra/larra; narra: guk larra esaten dioguna; iñar: txilar; zein bata zein bestie; berba leunak; leun berba eitten dau orrek; kape-laztei: haurrek barre egiteko elkarri esaten dioten hitza; satsa (zimaurre) irao, satsa iraoten; traskil: handi, baldar eta zabar; gorputz traskille edo baldarra; erremara: langa; zukulu makulu janarixe gertetan (nolanahi); arrausi (ahozabalka; txinger (sutako erregai gorria); neskatiñ txinpertie edo zolixe edo zertzetie (maratza); autestien nao (irrikaz zain); bedar igerra; gomuten naz; gomuteot *edo* gomutenaz; nire gomutako edo gomutan: nire oroitzean; burdiketz (zortzi zaku bete ikatz. Gurdia betetzen zen burdiketzez); trisketa: ateko itxigailua; krisketa: bi behatz elkar igurtziz ateratzen den soinua); nakorro *edo* makarro: : 1. kaxkar, eskas, ziztrin; bei makarrue, zar makarrue; agure nakorrue or doie; morrosa eta orroa (morrosa: abelgorriek bat batean ateratzen duen soinua);

1.4.

Hitz erabilkera egokiak:

Zazpi urte *barik* aita il jatan (baino lehen) (B)

Ordu bi *barik* etorriko da (baino lehen) (B)

Melokotoia *barik* milokotoia esaten dau (esan beharrean) (B)

Artu liburua eta *illebetegarrenean* ikesi noan (B)

2. MORFOLOGIA.

2.1.

Aramaioko euskarak, gipuzkeraren aldean askoz hobeki zaintzen du *-a* organikoa: gauza, amasa, eliza

2.2.

Mugatugabea ere bizkaierak gipuzkerak baino hobeki erabiltzen du:

Ezti ekarten joan da (B). Egur egiten dabil (B). *Jakitun* ifini euren (B). *Abarotan* daoaz ardiak (B). *Kerizpetan* daoaz ardixek. *Basotan* euki du etzalde orrek! (B). *Kotxe* orrek gasolinetan gastetan dau! *Olgetan* dabil (B).

2.3.1.

-rik + superlatiboari maiz eusten dio bizkaierak:

Txakurrik edarrena.

2.3.2.

-rik + konjuntzioa (konparaketan) edo adberbio. Sarri entzuten da.

Pobre *arrorik* baño txarraurik eztau (B)/ Gipuzkoan: "Pobre arroa baño gauza txarraurik ez"

Ordurik asko dauka egunek, bier eitteko (B).

2.4.

Gipuzkerak baino sarriago erabiltzen ditu bizkaierak *-txo*, *-txu* ttipigarriak: apurtxo bat, etxe txikitxo, txikitxu (B), gutxitxo

3.

BEREXKETAK

Aramaioko euskarak eta bizkaierak eskuarki, lehengo idazle zaharrek bezala, berexketa txit egokiak egiten ditu. Beste euskalkietan galduz joan dira.

3.1.

Erreflexiboak: *neure, zeure ...*

Nire txakurra oso politte da/Nik neure txakurra maite dot
 Zure txakurra politte da/Zuk zeure txakurra maite dozu
 Gure txakurra ... /Guk geure txakurra...
 Zuen txakurra... /Zuek zeuen txakurra...

3.2.

Intentsiboak: *neu, zeu...*

Ni beti joaten naz/ Neu joango naz
 Zu beti joaten zara/Zeu joango zara
 Gu/Geu
 Zuek/Zeuik

Idazle klasikoetan gauza bera ikusten dugu:

LEIZARRAGA:

- hunetan applika ahal dezaket *neure* defensionetan (Sarrera)
- Egiptetik deithu ukan dut *neure* Semea Mat.2,15
- Eta eztezazuela presumi *zeurok* baithan erraitera Mat. 3.9
- Baldin Iainkoaren Semea bahaiz, egotzak
eure burua beherera Mat. 4.6
- Utzi ezak han *eure* oblationea Mat 5.24 (dena *eurez* betea)
- eyezue *zeurok* iatera Mat 15.16

AXULAR:

- *Zeurea, zeurk* egina baitzendu bezala 11
- Zeren baldin *zerorrek* bizi zarela *zeure* arimaz orai konturik egiten ezpaduzu, eta
zeurk egin duzun falta.. 167
- .. *zeuen* ongiegiak... iratxekitzen deratzue 15
- *Zeuen* buruon etsaiak ... 15
- Ordea ezpainintzen *neure* buruaz fida 6
- *Neurk* egin nuen gizona, *neurk* deseginen dut 80
- *Geure* buruak... errekaitatu (proveer) 40
- .. *geure* anaia saldurik baikaude 286
- Hargatik gabilta bada orain *gerok* ere asaldatuak... 286

Gipuzkoan eta beste eskualdetan badira hauen antzeko intentsiboak, *neroni, nihaur...* baina askoz bakanago erabiltzen dira.

Har ditzagun, adibidez, gipuzkerazko eta bizkaierazko eguneroko "Meza santua". Gipuzkoako euskara pobreago eta murriztago dela ikusiko dugu. Gipuzkeraz ez dira bereizten erreflexiboak eta intentsiboak.

Gipuzkera

- Zuk kentzen dezu munduko pekatua
- Zu bakarrik Santua
- Zurea dezu Erregetza, zureak
- Jesukristo.. Zuk esana da

Bizkaiera

- Zeuk kentzen dozu...
- Zeuk bakarrik Santua
- Zeurea dozu Erregetza, ospe eta indarra
zeureak ospe...
- Jesukristo .. Zeuk esana da

Nigargarria hauxe da: Arrasate, Oñati, Elgoibar, Eibar eta bizkaieraz egiten den inguruetakoa herrietan beren euskara jatorra baztertu eta gipuzkera murriz horri eutsi diote meza emateko eta entzuteko.

2.3.

Erakusleak. Deiktikoak.

Hurbiltasuna ala urruntasuna adierazteko erakusle ezberdinak erabiltzen ditu Aramaioko euskarak eta bizkaierak. Hurbiltasuna adierazteko lehengo euskaraz eta bizkaieraz *o* morfema erabiltzen da. Urruntasuna adierazteko *a*. Ez dira, halere, bizkaieraz minzto den eskualde guztietan erabiltzen.

2.3.1.

- Emen, or, orain, gaur, aurten *BERTON* (B: Ean, Elantxoben eta inguruetan)
- Orain berton nua (B).
- Zuek, oingo gaztiok.
- Nik goizeon ein dot (B)
- Bertoraño etorri zaitxez.

* Orain lege berrion AX (Axular)

Orain arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akabatzeon AX

Orai, arratseon, atrapatu zareneon Ax

Orai bereon, presenteon AX

- An, orduan, atzo, biar, igaz *BERTAN*.
- An bertan dao elexie.

* Orduan zeure ondokoei eta han presentean AX

Ber berta(ra)ño fuen da.

Lengo gaztiok be jatorrak zien.

2.3.2.

Guk, (zuek) gizonok eitten dou (dozue) hori

Zuek, o(ra)ingo gaztiok

/Gizonak no(r)a fuen die?

2.3.3.

Egun on, lagun maiteok!”

“Egun on, jaunok!”

Bixok bakarrik gaz emen. Beste bixek etxien gelditu die

“Egun on Jangoikuak dizuela guztioi!” (B)

“Entzun, Jauna, gu pektarion negarra”

euskaldun geienon biotzetan (B)

* gauza hauen guzior beharra baduzuela Leiz. Mat 6.32

obra on horion guztion... zeorrek zeure eskuz egitea AX /Iparraldean da-
goz zure lagun maiteak

3. ADITZA

Aramaion eta bizkaieraz perpausa konpletiba moetak beste euskalki guztietan baino hobeki bereizten dira. Eibarren, adibidez, moldeok guztiok erabiltzen dira.

3.1.

-lal-na

Etorri dala esan dau/badaki etorri dana

Jakiña, etorri dana

Egia da Madrillen dauena

3.2.

-lal/nik

Etorri dala uste dot/ Ez dot uste etorri danik. Ezta egixa etorri danik. (Hemen hauxe da egitura: Ez dot ogirik)

3.3.

Galdegaia.

Aramaioko euskaraz, Bizakaia osoan bezala ongi bereizten dira:

Maite jausi da/Maite jausi eiñ da

Maitek jan dau/Maitek jan eiñ dau

Aditz konpletiboa iragangaitz (jausi, etorri...) bada, *egin* erantsita ere, aditz lagun-tzailea ez da iragankor egiten.

Ez dute esaten “* Maite jausi egin dau”.

Halaberean bizkaieraz mintzo den zenbait eskualdetan honelaxe esaten da:

Etorri zara (Deba ibarrean)
 Etorri be(h)ar zara (Deba ibarrean)
 Hemen ere *behar*-ek ez du aditzlaguntzailearen iragangaiztasuna aldarazten.

3.4.

Bizkaieraz oraindik ere badira beste euskalkietan jokatzeko ez diren aditzak:

Ihardun: diardut, ziardu(e)n (Deba Ibarrean)
 Eritzi: deritzot, deritzo, zer deritzozu?
 Eragin: bedar ebaten badaragoio (B)
 Eutsi: etzeari dautsala garajea dao (B)

3.5.

Sustantibo itxura duten antzinateko molde bikainak

Aramaio, Mondragoi-Oñati-Eskoriatza-Aratxabaleta inguruetan batez ere, eten gabe erabiltzen dituzte aditz-sustantibo moldeak. Moldeok antzinateko euskararen usain ona dute. Beste euskalki guztietan galdu egin dira. Denera egungo egunean euskararik bikainenena zazpi probintzietatik eskualde horietan egiten da.

3.5.1.

-keta moldeak

Geldiketan zara, otziketan da (hozten da), jarraiketan dot, orri kimaketan nabil, ospaketan da, isilketan die, eskaketan deue, ori konponketan diru asko gastau bier, ezaguketan dot, adiketan dot, pentsaketan debe, zainketan dogu, ifinitzu esnea beroketan, ustelketan dao

3.5.2.

-ketarren

Bestiekin ongo geldiketarren: gelditze arren

Beste euskalkietan erabiltzen diren moldeak, gelditzen zara, hozten da... erromanizatuagoak dira.

3.5.3.

-kera moldeak

Gauza bera esan liteke illun~~keran~~, jauskeran eta horien antzeko moldeez.

Guk illuntzean, illuntzerakoan, jaustean.. erabiltzen ditugu, hots, molde erromanizatuagoak.

Hemen lehenago esanda arraesango dut: belarrientzako moldeok ez dira beharbada oso goxoak, baina bai euskaldun eta indartsu!

Sustantibo molde eder horietatik guri banaka batzuk bakarrik gelditu zaizkigu:

Urketan da, egurketan ari da, orrazketan dihardu. Baina ez gerundioaren ordezkoak egiteko.

3.5.4.

-tan (mugatugabekoen bukaera) duten moldeak, beste euskalkietako *-tzen*-en ordez.

Pentzetan dot, uste ezтана gertetan da batzuetan, ze pasetan jako, arrapetan dabil, berotan dau, alabetan dozu, batonbatak bere burua abonetan dau, asko kostetan da, gomutetan naz, biajetan dot.

Erronkariko euskaraz ere gauza bera ikusten dugu:

Etseko ardaunetik ezda ñor ere orditan (Azkue: atsotitzak 1335)

Liburu zerratuak ez du (dio) iñori ere eratsukitan Azk [Isilik dagoenarengandik deus ikasten ez]

Alegratan dei arrotzek xiten (etortzen) drenean

Lein utsitan (itsutzen) da begi andia ezik txikerra Azk

Mi(hi)az egiten dan mina da azken sontotan (sendatzen) dena Azk

Mendiak egiten deinean sonu, tenprak euri barrotatan du Azk 1208

Anixko beatan dion etsukandreak, txik (gutxi) urutan (iruten) du Azk 1264

3.5.5.

-tan -tera-ren ordez

Biajetan noa/Biajatzera noa

Bañetan zoaz/Bañatzera zoaz (*bañarte a*, erdaraz bezala)

3.5.6.

-ean moldea *-tuz*-en ordez:

Preguntien Erromara fueten: *preguntatuz*...

3.5.7.

Erdararen antza ez duten moldeak

Berbetan egin: to do in words (hitz egin)

3.5.8.

-tako:

Erropie plantxetako. Denporie pasetako



3.5.9.

-*ten -tera*-ren ordez. Bizkaieraz erdal usain guttiago du

Sagar erosten joan da (B) Sagarrak erosten fuen da

Egur ekarten doa (B)

4. KONJUNTZIOAK

Euskalki guztien artetik bizkaierak du konjuntzioak perpausaren azkenean ipintzeko senarik biziena, euskarari dagokion bezala. Indoeuropar hizkuntzarik gehienetsuek konjuntzioak aurrean ipintzen dituzte.

* Nik esan neutson *bañe*

* Nik esan neutsen, ba(da)

* Nik esan ion *barren!* bai arren (Deba ibarrean) (¡Pero si yo se lo dije!)

* Ori ez eñ, *gero!*

* Nik ori ekarri *arren*. Orain hauxe jarri da modan: "NAHIZ hori ekarri". Askoz erdaldunago, indoeuropar moldetan.

5. ERREPIKATZEA

Errepikatzearen bidez, erramolde pollitak sortzen ditu bizkaierak:

5.1.

Aditza aldi diferentetan errepikatuz

- Ak emautzen emotekuek

- Zu zaz egotekue

- Bearra amaitxuta deuko euki (B)

- E(g)on badau

- Arena da izan (B)

- Polita da izan Irune (B)

- Jakin badakigu

- Fuen badoie edo Badoa joan (B)

- Etorri badator

5.2.

Sustantiboa errepikatuz

Guztietan esan beharrean bizkaieraz sustantiboa berresaten da

Frakan frakan ez dao gizona (Deba ibarrean)

Lekuen lekuen txakurrak ortosik

Etxien etxien malue

5.3.

Beste euskalkietan ere bai, baina bizkaieraz sarritxoago entzuten da superlatiboa hitz bera arraesanez

On ona da
Polit politta da

6. JOSKERA

6.1.

Konparaketan konparatzen den sujetoa azkenean ipiniz
Bi txar baño, *bat ona oba*

6.2.

Pare, kantitatea denez gero, determinatzen duen hitzaren aurrean ongi ipintzen dute bizkaieraz

Aramaion, bizkaieraz eta gipuzkeraz ederki:
Dozena bat *arrautze jan* zittuen

Aramaion (ongi)	Gipuzkeraz (gaizki)
Pare bat <i>arraultza jan</i> zuen	Arraultza <i>pare bat jan</i> zuen
Pare bat galtzerdi jantzi zuen	Galtzerdi pare bat jantzi
Pare bi fraka jantzi zittuen	Bi galtza pare jantzi zituen

Ikusten denez, bizkaierak josten ditu ongi hitzak. Sintagma zuzena *arraultza jan, galtzerdi jantzi* dira, *zazpi kaja tomate jan* edo *bost baso ur edan* den bezala.

7. ATSOTITZAK

Aramaion ehunka atsotitz bildu ditut. Gehien gehienak Ipurtotzeko Emeterio Bergaretxeren ahotik.

Hemen banaka batzuk ipiniko ditut. Laster agertuko da nire atsotitz liburu bat, 13.000 atsotitzekin. Hantxe Ipurtotzen bertan bildutako atsotitz askoz gehiago ikusteko aukera izango du irakurleak eta esanahia azalduta, gainera.

- Abadearen lapikotxue txikixe baña goxue
- Abenduko egune, argitu orduko illune
- Abenduko izarratuaz, bire (bide) baztarreko aretxaz da tabernako neskiak ez fixau
- Aberatsa, infernuko lebatza

- Abuztu: Agustuen bata zelako amairue alako; bigarrena zelako, amalaua alako... eta abar
- Adur: Berezko adurre bie da bertsolarie izateko
- Agindu: Dominus vobiscum: “agindu ta emon ez eñ euskun
- Agur, amandre, bixer arte
- Agur, Josefateko zelaira arte, lenao ikusten ezpag(ar)a
- A(ha)l dauenak baño gure dauenak geixao eitten dau
- Ahal: Al dauenak al dauentxue, nire emaztetzue
- Ague zabaltzie libre da
- Alperr(ar)en urek bi tenple; beruei edo otzei
- Altza gogorra izango bada, Maiatzeko ilbarrixen bota bieda; biguna gure bada, beste sasoietan
- Ama, aguebeteko izena
- Amarratza (Armiarma) agerketan danean laster eurixe
- Amillena, fraka zarren bille dabillena 1. Jantzi zaharrak jantziarazten 2. Jende zaharra hilarazten. Amillena: Galiziatik heldu den haize hotza
- Anbotoko belie Anboto(r)a
- Andra Santa Ines, eñ doalako ames, ona bada bixon partez, txarra bada bixon kaltez
- Andriek sukaldie bete eñ bie dau
- Arabarra jan da otz
- Arbiazi urte ona, urte onaren ezaugarri
- Arbixa: Mokiltzan erañ ta lokatzen batu
- Arbola onak keizpe ona
- Ardi txikixe beti bildots
- Arditten, biorretan eta erletan ondasun dana ez ifñi
- Ardixen kulpie bildotsak pagau
- Ardurie daukenak eñ deixala
- Arerioxuei sarritan kandela biaz argi egin bie jake
Harengandik mesede iristeko
- Arnasie artu eta putz eñ, bixak batera ezin
- Arpegi guztiei merezi dauen egixe etxate beti bota bier

- Arraiñe ta barrixue agotik galtzen
- Arrausixe agotik ago(r)a, txorixe arbolatik arbola(r)a
- Arrautzak bitik pasau eta nones * Gutxienez hiru jan behar dira
- Arrazoi: Batek eztauko arrazoi guztie
- Arre arre mandoko, bixar Tolosarako, etzi Panplonarako, handik zer ekarriko, zapatak ta gerriko, danak neretzako
- Arre arre, triko triko, asto berenue (pozoina), okerreko bidetik, nora ote due
- Artajorran baño dantzan obeto daki
- Artoberuen gañien eztixe zainketan dauenak bizomorue atarako dau * Labatik atera berria den arto beroaren gainean eztia kanpora bota gabe ipintzea eta jatea ez da erraz
- Artzeko erain eñi bidea
- Asko daukenak geixao gure
- Asko eta txarra baño ona eta gutxi oba
- Asko eukittie baño naikue eukittia oba
- Asko ikusi ta gutxi ikasi
- Asko ta ondo usuek egan
- Aste ederra jai kakatsu
- Astiro baña seguru
- Asto akabauei garagarra muturrera
- Asto bati buztana ata(r)a eta bestiei sartu
- Asto: Bakotxak *edo* Noberak bere astuei (astoari) arre
- Astoka irabazi ta mandoka gastau
- Aukeratzie lan txarra
- Auntze infernuko pautze (ahutzak)
- Aurrera mutillek, fraka zarrak eta begiek gorriek
- Aurretik ondo esan eta atzetik saldu
- Aurriek erakutsiko dau atziek zelan ibili
- Auzoko ogixe beti gosuaue
- Bai: Beti “bai, bai” esaten dauenaz kontuz!
- Balego da balitz, alkarren onduen dabitz

- Baleuko ta balitz alkarren onduen dabitz
- Bapez baño berandu oba
- Bapezen onduen (*edo* aurrien) apur bat onena
- Barikuen asten dan ille, txarraue
- Barriketa asko ta gauza gutxi
- Basabehi: Lenaoko basabeixek esan euen, Santo Domingo pasau arte, arran bete lasto gordetako * Maiatzaren amabixen
- Basarria ondo ibiltzeko kumie (seaska) ez da gelditu bier * Beti egon behar dira umeak
- Basarritarra beti ikasten
- Batek gura ez padau, burrukarik ez
- Bazko: Paskue euritsu, urtie ogitsu
- Bedar txarra berez urteten
- Begi: Dauen lekuen begixe argi; eztauen lekuen atzamarrak garbi
- Begixek asko ikusi ta gutxi sufriru (sufritu)
- Behar: Ontxe bie (behar) nozu eta ontxe ez nozu (behar)
- Bierrak bierra eraiñ
- Beheko sua: Bekosuek aurrekaldie berotu ez ta atzekaldie otzitu
- Behera: Berao ez az jungo! * Zerbait erori eta lurra jo duenean
- Bekoki estukue borondate gutxikue; bekoki zabalekue borondate onekue
- Belar txarra ez da be(r) e(ha)la galtzen
- Berakatza zazpi gaitzen kontrakue
- Berba eitte ordurako pentsau birriten
- Berba gutxi ta ondo esan
- Berba: Personiek berbakue izen bie dau
- Beretako asko bie (behar) dau * Ez dio, beraz, inori ezer ematen
- Berez etorri ta berez fuen
- Beste etxien samur hazten dira umiek
- Beste zeregiñik eztaukenak txakurrei ardixek ill
- Bestien miñek miñ gutxi

- Bestiek emunixen (eman diezaioten) begira dauena erruki
- Bide guztietatik fueten da Erromara
- Bide luzien karga txikixe aundixe
- Bigarren ume denporie txarraue * Zaharra umetzen delarik
- Bihar: Bixer be Jangoikuek egune zabalduko dau
- Bista: Auxe da auxe, bixok biste ona da alkar ezin ikusi
- Bixusturtien iri (idi) zurixe saldu da artue ekarri etxera
Neguaren beldurrez, bisusturtekoa luzea izaten omen da eta
- Bizi dana argituko (agertuko) da
- Bizi ezin eta ilterrik gure ez
- Bizi gure ta il eiñ bier
- *Brometan asi ta benetan akabau*
- Burue ibilli ezik, anak ibilli bier
- Buzkantza ta ezkontza beruen
- Dana gure, dana galdu
- Danen gustora ezin leike eiñ
- Danok balixo dou zeozetarako
- Danok dauk(ag)u zeozer
- Dauen lekutik eruaten da
- Debaldeko manduei etxako agiñetara begiratu bier
- Dirue diruana doie
- Diruek bakarrik ez deuko zoriona
- Diruek diruei deiketautso
- Diruek txakurrei be dantzan eraitten ei dotse
- Durango zapo errixe
- Eder: Keie edarrana (ederrarengana) fueten da
- Ederra [Edarra] ta ona biak leku baten gatxa da billatzen
- Egi danak ez tie esatekuek
- Egixek begixe erre
- Egin: Zeurie eiñ ondo eta bestiei ez begitu

- *Eza da baltza*
- *Eza(r)i emonak ezak eruen * Gezurrez ukatzen dena alperrik galdu. Hogei ardi izanik, bi bakarrik dituela esaten duenak, enparauko 18ak (=eza) galdu egingo ditu. Zenbait tokitan eza laminek beraientzat hartzen zutela uste zuten.*
- *Ezaun da Madrilen pasau etzarena * Atea zabalik uzten denean*
- *Ezkondur aurretik neska zarra zan; ta oiñ andre gaztie*
- *Ezkontza pobrerik ez; eriotza aberatsik ez*
- *Ezkontza ta buzkentza beruen*
- *Ezkur urte, elur urte*
- *Eztakigu noren premiñan aurkittuko garen*
- *Eztauan lekuen atzamarra garbi; dauen lekuen begixak argi*
- *Fama: Batzuk famie, beste batzuk lanie*
- *Famie baño lanie (artile) obie*
- *Fede: Zer da fedie? Lelengo fedie; bigarrena esperantza; iltzan karidadie da bizi da bengantza*
- *Frailien dozenie hamairu*
- *Gabean txorixe ta goizien txarrix * Logure. Zerria maiz erdi lo egoten baita.*
- *Gabezko lana, egunezko lotsagarri*
- *Galazotakue goxuaue*
- *Galdu: Daukenai galtzen jako*
- *Ganorabakuen etxien goxeko saldie arratsien*
- *Gari ona arkatik saltzen da*
- *Gari: Garixe andixe banintzen, txikixe banintzen, maietzien burue nintzen*
- *Garixek artuei: Nire moruko belarrik ez. Artuek: Ni nauen lekuen goserik ez*
- *Garizimie berandu, udaberrie berandu*
- *Gariziman ezta iñor ezkonketan*
- *Gatza Gatzan da zentzune Mariñen * Gatza ta Mariñe Ezkoriazako auzoak dira. Janak gatz gutxi duenean*
- *Gau alegeriek goiz tristiek*
- *Gau: Gaba luzie*
- *Gau: Gabeko bierra egunezko lotsagarri*

- Gau: Gaba gabekuentzat, eguna egunekuentzat
- Gaur eñ al dozune, ez itxi bixarko
- Gauza guztiei erdixa topau biegate
- Gauza guztiek beren neurrix
- Gazki esana parkatu, da aldeko txakurra urketu
- Gaztiek gaztelu, zarrak maskelu * Gazteak gazteluak bezain indartsu eta zaharrak argal. Maskelua esnea egosteko ontzia da, baina *maskelotuta* argalduta, indardabetua esan nahi du. Maskelotuta hago
- Gazteik il gure ez ta zarrik ñok ikusi gure ez
- Gaztiak zoro zoro, zarrak zoruago, zarren zorotasuna ez dok obiago
- Gaztiek zazpi kanako estiek * 26 ontza. Metroak 42 ontza
- Gelatzuek berba eingo baleu
- Gero gerokuek: 1. Gaizki ibiliz gero, ondorio txarra 2. Ez da etorkizunaz sobera arduratu behar
- Gezur: Askok arnasan be guzurra
- Gezurti: Guzurtixei egixe esaten dauenien be etxako siñisketan
- Gezurtixe ta kojue aguro jausten dire
- Gizon txikixek erronka haundixe
- Gizona gerritik neurketan da
- Gizona gizon otzarapeien be gizon
- Goiz: Gox ona pasau dauenak atsalde txarra pasetako dau * Gazte denboran alferkerian igaro eta zahartzaroan gaizki
- Goiz: Goxiek arratsaldie dauko; arratsaldiek gaba
- Goiz: Goxien gox jagiten danai aingeru guardiek lagunketatso
- Goizxe, gure behiak aretxe
- Gorrik txarrena* da entzun gure eztauenena
- Gosiek ez dau iltzen. Baña bie danien biedana artu ezak bai
- Gosiek dagonien astuek arrantza
- Gosien kontra ogi gogorrik ez
- Goxien gox jaikitten danai Jangoikuek lagunketauso
- Gu baño obeto dauena eztao txarto

- Gu ilda gero be zorruek fuengo dire errotara
- Guraso: Zeu zeure gurasoekin zelan, zeure umiek zeurekin alan
- Gure izan ezkeru bierra ezta falta
- Gure izetie eta al izetie bi
- Gutxi, gutxi, asko jan, gutxi ikesi
- Haize: Axiek ekarri, axiek eruen
- Haizekapela: Axekapelaz asi, axekapelaz * Erokeriaren bat esaten denean
- Hamaika: Amaika, atsuei agurie jarraika
- Hamaika: Amaika amaika t'erdiko bada munduen * Moeta askotako jendea
- Hamar: Amar, kolko bete sagar
- Harri: Harrixte bota ta eskue gorde
- Harrokerixie miñien, fraka zarrak soñien
- Haserretu: Batek gure ezpadau, bi hasarretzen ez
- Heriotzea: Derrigorrezkue eriotzie da
- Herri: Herri txikixe, infernu aundixe
- Hil: Il da gero dana sobran
- Hil: Il da gero danak onak
- Hilberan: Ilberan arbolak ure beian; hilbarrixen* goixen
- Hiru, kolkue bete diru
- Hogeita amaie eskutik eñ du
- Hori ala bazan, sartu dadille Derioko plazan * Ipuin bat bukatzerakoan esaten. Ipurtozkoek esaten didate Derion ez dela plazarik. Berez, ipuina gezurra dela adierazten dela.
- Idi: Irixei adarretik; gizonai berbatik
- Idi: Idixe surmintzetatik eta zaldixe atzeko iztar kontrako magaletik * Ongi atxikitzeke, heltzeke, eusteko.
- Ietaixe, erreminte txikixe baña astune * Lan gogorra zen gari eta belar igitaiz eba-kitzea
- Ijittuek eta katuek etxeoandrien deskuidotik bizi dira
- Ikasi [Ikasi] ta gero danak jakintsu
- Ikasi: Iñor ez da ikesitte jaixoten

- Ikesteko* biderik seguruen a premina
- Ikusi: Zer ikusi aze gure
- Ikusixe kontau geike, baña eztakigu zer ikusteko gaozen
- Infernue eztao mandoburuz beteta, gizon txarrez baño
- Iñuzente potente, txakurren buztana tente
- Irabazi: Samur irebazi, samur gastau
- Irabazi: Zelan irabazi alan irezi (iragazi)
- Iriñik eztauket, baña esnie baneuko, Otalazelaitik (Aretxabaletako Asatza auzoko baserri baten izena) maskelue ekarrita morokilla egingo giñuke
- Ito: Ittoten dauenak burdiña gorixari ebatuko luzkio
Ebatu: oratu, helduko lioke
- Itsuen herrixen begi bakarra alkate
- Iturri: Sarri iturrirre doien pitxerra apurtu
- Izotzen gañeko murie (kanbioa, muda) edurre eñ gurie
- Jai eguneko lanak ez dau iñor aberasketan
- Jakin: Dakixena miñien, da daukana soñien * Daukan eta dakien guzia erakusten duenaz
- Jakitunik ez da jaixoten
- Jan bako ederrik eztao; janiko erkiñe bai, egon leike
- Jan bako eranak kalte eitten dau
- Jan bizitzeko, ez bizi jateko
- Jan dounek da eran dounek on ein daigule
- Jan: Ez jan da ez lan * Ezertarako balio ez duela
- Janak on eñ daigula ta eranak kalterik ez
- Jangoikue bat eta bera naikue
- Jangoikue ill dan barri(ri)k eztao ondion
- Jangoikuek eztutu eitten dau, bañe itto ez
- Jangoikuek pagauko dutsu * Eskerrak emateko
- Jaungoikuek emon eta Jaungoikoak eruen
- Jangoikuek gaba gabezkuentzat ta egune egunezkuentzat
- Jaten dauena biziko da; jaten ez dauena ilgo da

- Jenixue atxurrek eta paliek kendu bikutso orri * Hil arte ez da aldatuko.
- Jolasien asi ta benetan akabau
- Joxe Moxe kitterra, auntzek añeko bizerra, botako lauke, botako lauke, Frantzia-ñoko uzterra
- Julian Julian, ardi bi gurian, beste bi larran, Julian parran
- Justiri asko, euri gutxi * Berriketa asko eta gutxi egin
- Kakak zenbat eta erein (eragin) geixao, usein txarraue
Kakai zenbat eta buelta geixao emon, orduen da useiñ txarraue
- Kandelarixotan (*edo* Kandelarixoz) edurre, fuen da neguen billurre; kandelarixotan (*edo* kandelarixoz) euzki, negue dogu atzetik
- Kanpo larrosa, etxe kardu
- Kanpoko kanpaiek ots aundixe
- Kanpuen larrosa, etxien kardu
- Karkaxie asko da (eta) arrautze gutxi
- Kattalin, kattalin, katillu zarien kaka eiñ; katillu berrixen gorue; Kattalin biregarrue
- Katua zein aldetara aurpegixe garbiketean dauen, andik axie
- Konfiantzie bein galtzen da
- Kontsejuek bestientzat eta bokau onak noberentzat
- Kontzientzixe antzarrak jan euan * Buzti zalako azaorrixen gaiñean sikiketan ifini eta antzarrak jan
- Kontzientzixe aspaldi txakurrek jan euen
- Kontzientzixe berdia zalako astuek jan euan
- Kukuek zazpi urte eiñ zittuen eskolan da ikesi euen “kuku”
- Kurtze Santuen, tekixe (zerritegia) pasau dozuleko saltuen
- Laixen estu, maixen nasai * Laien egiteko elkarren ondoan ibiltzen ziren, gehiementan hiru lagun, bakoitzak bi lairekin
- Lan: Batzuk lanie ta beste batzuk famie
- Lan: Beste lanik ez daukanak txakurrei ardixak il
- Lan: Gizonak etxok bierrak galtzen, janezak baño * Sartu gabe
- Lana eiñ beti bizi bier bazeuke moruen; eta bizi gaur il bier bazeuke moruen
- Lana neurrixen (da ona)

■ Lanerako azken: jane(r)ako lehen

- Langille onentzako eztao erremintte txarrrik
- Langille txarrentzako eztao erremintte onik
- Lapiko: Zelako lapikue, alako astie * Asta: kirtena, eskulekua
- Lapikuei gatza botaten (ematen) ekiten bieutsala eta asko ikasi euan * Gauzak bere sakelako diruaz ordaindu behar izan zuenean
- Lapurre lapurr(ar)en billur * Beste lapurrak ere maltzur eta antzetsuak direla bada-kielako
- Larrei guztiak txarrak *edo* Larreixe beti txarra * Gehiegi guztiak txarrak
- Larrosa: Batzuk kanpo larrosa ta etxe kardu; beste batzuk etxe larrosa ta kanpo kardu
- Latz eta zintzo zintzo/gaztetan aziak/ ontzat artuko ditu/neke ta gosiak./Almen aundia dauka/gorputz ondo eziak/maite izango dute/beti nagusiak./Arentzat leku onak, dirade guztiak./ Mutilla asitzen bada/gaztetatik leun/alan bizi naiko du/gero gau eta egun./Lanera iristean/izango da ezagun/zeinek izan naiko du/gero aren lagun. * Ipurtotzeko Emeteriok esan arren, ez dira bertoko bertsoak.
- Lau meixen (diru moeta) pupue da sei meixen trapue
- Lehengusu: Primuen umie loba; atzie baño aurrie apur bat oba
"Aberatsen tratamentue luzetxo izaten da; pobriena aguro aztu eitten da"
- Lekuen lekuen txakurrak ortosik
- Lotsabakuentzako mundue de irabazten dauenentzako zerue
- Ma(ha)stixe billurrek zainketan dau
- Madril, Toledo: kanpuek ikusi ta etxera gero
- Mahai: Gure mai ona mai ondrau, ez faltau da ez sobrau
- Maiatzen aundixe banintzen, txikixe banintzen, lora nintzen
- Maietza euritsu, urte ogitsu
- Makillari ez itxi (utzi) bizi zaren artien * Etxeko nagusiak ondasunak eta agintea ez ditu hil arte utzi behar
- Mando illari garagarra muturrera
- Manduek ostikerie emautsen Ama Birjinari; Ama Birjinak esan eutsen: "Geixago ezton ume(r)ik eingo"
- Mari Belasko, okela gutxi ta salda asko

- Mari gorringo, bier euzki ala eurie eingo? * Kattalin gorria atzamar erpinera heldu denean, hegaldatu baino lehen esaten. 1992an asko izan zen
- Mari Juan, nola etorri ala fuan
- Marixe makilletue, berez bidea fatue (gatza, ganora, berezkoa)
- Marti kakatzu, april ederrien sartu natxatzu
- Martitzenien eta barikuen ezkontzie txarra
- Martixek erdixe beti txarra; dana be bai batzutan *edo* Martixek dana ezparabe, erdixe txarra
- Martixen kukuek jo baño, otsue ardiartien ikusi oba
- Martixen subie ikustea baño ardi artien otsue ikustie oba
- Masusta urte, elur urte
- Mendira ogixe ta txamarrie eruen
- Mendixe goseberie da
- Meza: Esaten dien danak ezttituk izeten mezak * Gezurrak ere esaten dira
- Miskiñuen gauzie medranuek jan * Zikoitzaren gauzak bizkaginek, inoren lepotik bizi direnak jan
- Mitxeleta zurixek barri onak
- Mozkorak hiru antz: batzuk txorixen antza: kantari; beste batzuk txarrixen antza: lo; beste batzuk artzaren antza: burrukari
- Mu(n)gixe lapur guztien errixe
- Natibitate ase ta bete; San Estebantxo, len bezelantxo
- Negar da barre, txitxi burduntzi, kamara zarrien danak iruntsi (iruntzi) * Hurrei esaten
- Neguen egunsentiko orduak baño illunkerakuek gosuauek dira * Goizaldian hotz handiago
- Neskatilla maratilla, ipurdixan korapilla
- Neskatilla-mutikuek sasi sasi, asko jan ta gutxi ikesi
- Neuk esanda ezta Ameriketara inor fuengo
- Nikolas, jan ta jolas
- Noberentzako eztana inontzako be ezta
- Nungue az, mutikue? -Ollu zurixek arrautze baltzak eitettuen lekukue
- Norte, sur, este, oeste, Martin odoloste

- Ogirik ezien artue gozue
- Okilla kantari, eurixe seguru
- *Olixo gordin useñe badu batonbatek, purgatorixoko arimak errezuen eske da(go)z*
- Ollo gosie kantari
- On bille, on bille, bonbille * Oinezkorik nahi ez eta zaldizkorik etorri ez
- On ein daizuela janak ta kalterik ez eranak
- Oñetiarrak txantxikuk
- Ondo egiñen pague, ate ostien palue
- *Ondo eitteko ez da sekula berandu*
- Ondo esatie ezta asko kostaten
- Ondo? -Oie usketan (hustutzen) dot beintzat
- Onera danok oiketean ga(re)
- Or konpon, Mari Anton, txakurrek buztena berie jon (din)
- Osasun ona eukitzeko oilluekin o(h)era eta txorixekin jagi
- *Osasune, mundu onetako ondasune*
- Osasunek zer balixo dauen, eztakigu galdu arte
- Ostiral: Barikuaz asten diren illek geixen baten txarrak
- Otsaille katuille
- Pekatari: Zu pekatarixe * Besteak dira errudun, ni ez.
- Pertsoniek arpegiz arpegi begiratzen ezpadau, eztau konfiantzaik emoten
- *Pobrien erresoie, aberatsen iñderra ta basoko egur igerra alperrik galtzen die*
- Porrue astuentzat * Elikadura eskasa omen da
- Preguntien fueten da Erromara
- Premiña: Eztakigu noren premiñan aurkituko garen
- Premiñiek erakusten dau
- Puntak danak txarrak * Gehiegi guztiak txarrak
- *Saillien estu (jende asko), maixen nasai * Lanean jende asko bada, ona, lahian aritzeko eta; mahian lasai egotea hobe; bakoitzarentzat jan gehiago eta toki gehiago*
- Saltsa danetako perrejilla
- Samur (Erraz) irabazi, samur gastau

- Samur datorrenai samur jarein (gastatu) * Samur irabazi samur jarein (gastatu)
- San Antonio, San Antonio, txarrixte gaixo danien; San Antonio atien dao, ama eztao etxien * San Antonioren izenean etxera eskekoak etortzen zirenean, etxean ama ez zegoela esaten, limosnarik ez emateko
- San Bizentze otza, negue(re)n biotza
- San Blas, ona baz, biziko al az; txarra baz, tragauko (hilgo) al az
- San Jorgi artuek eraiteko goixegi; San Markos, artuek eraindde balegoz
- San Juan, San Juan, biba San Juan, artuek eta garixek gora, biba San Juan, subak (sugeak) eta zapuek erre, erre, erre, biba San Juan
- San Juan euli gabie, urte ogi gabie
- San Lorentzo egune, esku baten sue da bestien ure
- San Martin, bierrak bierra erañ * Premiñek premiñe
- San Silbestre: Lana zein eiñ zeñ ez eiñ, urtien azkenien San Silbestre
- Santa Barbara txakurren buztena gora gora
- Santa Barbara, Santa Kruz, Jauna baligu zakigu; iñuzentien ogixe, Jaune da miserikordixe * Oreixe (ekaitza) datorrenien esaten
- Santa Luzietan gaba luze; San Bernaetan egune; nobera ondo dauenien ezta erruki lagune
- Santa Mañe (Marina): Txingilin txingilin mañe, bixer Santa Mañe, etzi Domu Santu, umie zuluena sartu, ama negarrez, aitte doloz, abadie kantuen, pezetien pozez * (Haurrek kantatu egiten dute)
- Santa Maria madre, txakurrek jan gure nabe; goazen beste errire, an be txakurrek die
- Seguran jaixo, Zegaman azi, Amezketan bizi, lapur bizi bizi
- Senirie seniriek
- Senitarteko saltsan ez sartu
- Sitteno (Si eta no) ta poraqui (por aqui) gure txakurrek erdaraz daki * Erdaraz ari denaz, ongi jakin ezta
- Soin: Daukun (Daukagun) dana aldien [edo soñien] da dakigun dana miñien
- Sokiei larregi ez tiretu
- Suarekin ez ibilli, bestelan oien (ohean) txixe ingozu
- Tanta: Lenengoko euritantakiek nagixe jotzen dau
- Tantakaka tantakaka arrixte zulatzen da

- Tirin, tirin, toron toron, Juakin, Juakin, Anton, Anton
- Tiro batez bi txori il
- Tomas, jan ta jolas
- Tonto listo asko munduen * Inoren lepotik bizi nahi dutenak
- Txapela buruen ta ibilli munduen
- Txar: Gauza txarra erakutsi barik ikesten da
- Txarto asi, txarto akabau
- Txarto eiña parkatu; ta aldeko txakurra urkatu
- Txarto esanak parkatu; ondo esanak goguen artu
- Txikixe banintzen aundixe banintzen, maiatzien lora nintzen
- Txixe e(g)itten dauen santuekin ez fixau
- Txori: Eun txori egan baño bat eskuen oba
- Txorixorik goxuea agatik
- Txoropiona, bakotxak bere gustue
- Txutxurrutxu jaune, nun dau aitte jaune, zeruetan jaune, zetan zeruetan, artakarantxuek batzen, artakarantxuek zetako, ollotxuentzako, ollotxuek zetako, arrautzatxuek eitteko, arrautzatxuek zetako, olatientzako, olatie abadiantzako, abadie zetako, mezie emoteko, mezie zetako, aingerutxo bixen erdixen jarri da zerura fueteko
- Ume bako etxie, lora bako tiestue (lorontzia)
- Umiek ez deuz jasoten pisue baño esandakue bai
- Umiek eztau kargarik jasoten, baño berbie bai
- Umiek umekerixek
- Umien zentzune etxien entzune
- Ur: Batzutan urek aundi; beste batzuetan munak aundi * Urak lurra janez, munak egiten. Gauzak aldatu egiten dira.
- Ur: Batzuten ure baldien ezin ekarri; ta beste batzuetan galbaien be bai
- Ur: Ez esan 'nik ortik basotik urik ez dot erango'
- Ure fuen da gero, presagiñen
- Urak ekarri ta axiek eruen (*edo* urek eruen) * Neskameak esnari ura botatzen zion esnari. Uraren irabaziarekin musuzapia erosi zuen. Musuzapia garbitu eta lehortzen narra gainean utzi zuenean haizeak (errekara) eraman.

- Urte: Batzuetan urte asko ez tie bier gauze asko ikusteko
- Urte: Igez ogei urte, aurtan emeretz, urtien baño urtien gutxiago gure Mariñasik
- Urtiek fuen, gaixue argitu (azaldu)
- Zahar: Zarrai aguro ibilteko esatie da umiei geldi egoteko esatie alperrik
- Zartzaruen atxekixe asko
- Zahietan (Zaiten) zintzo, urunetan ero
- Zakur: An be txakurrek ortosik
- Zakur: Txakur zurixek ebatutzu * Alpergurak jota zaude
- Zakur: Txakur gosie dantzari, ollo gosie kantari
- Zakur: Txakur gosiek okelie ames
- Zakur: Txakurren aginkarie txakurrek mieztu
- Zarata asko ta intxaur gutxi
- Ze barri? -Zarra berri * Lehengo berriak, ez da albiste berririk
- Ze eingau, ba; il arte bizi
- Zekenek gauzie medranuek jan
- Zelako ama, alako umie
- Zelako bizitza alako eriotza
- Zelako gurasuek alako umiek
- Zelan irebazi alan irezi (iragazi)
- Zenbat eta gorago zartadia aundixago
- Zeozer egunero ikasten da
- -Zer da? -Araban txarri emie
- Zintzoen gauzie merrenak jan
- Ziririk txarrena bere egur klasie
- Zorri aberastue baño txarraorik eztao * Zorri aberastue txarrena
- Zozuek beliei "Ipurbaltz!" * Emeteriok hauxe ere esaten du: Zozuek beliei "Ipurbaltz"/ Beliek: "Nirea baltza dala/utsa litzake/zurie txuriago balitza./ Zozo arroxkok au aditzian/eiñ zuana lenbizi/bere ipurdia zelakue zan/bigiratuten asi/ Bestie bañe ainbat baltzago/berea zuan ikusi/sasi batien ezkutatu zan/ beleagandik igesi [Ikus litekeenez, euskara ez da zeharo Ipurtotzekoa]

8. BUKAERA

Bukatzeko, haseran esandakoa berresateak merezi du. Euskal Herri osoan baserritarren euskara zinez ederra da. Goizuetan, Larrainen, Altzainen, Azpeitian, Idiazabalen, Amaiurren, Aiherran, Azkoitian ... baserritarrek egiten duten euskara zoragarria da. Bestalde, herri bakoitzean gordetzen dira besteetan galdu diren hitzak, esamoldeak, atsotitzak eta ipuinak.

Bizkaiko baserritarren euskarak, berriz, belarrirako gogortxo eta latza bada ere, egitura aldetik ez dio inongo euskarari zorrik.

Eta bizkaieraz egiten den eskualdeetatik bat aukeratzekotan nik Aramaio, Mondragoi, Oñati... osatzen duten eskualdea aukeratuko nuke.

Gotzon Garate Gohartzun